

## **Merktuaren segmentazioa:**

Gure produktua futbola kalera eramateko pentsatuta dago, eta honekin batera, jende gehiago futbola jolastera animatzeko, gainera futbolearen bitartez harremantzeko eta ondo pasatzeko. Eta gure produktua aurrera eraman ahal izateko bezero egoki batzuentzako egokitu behar izan dugu.

Gure produktuak merkatu masiboa du, antzeko behar eta arazoak dituzten kontsumitzaileentzat delako, hau da, gure kasuan, futbola praktikatu nahi dutenentzat eta horrez gain, beste pertsona batzuekin harremanu nahi dutenentzat. Hala ere, bezeroak ezaugarri espezifiko batzuk izan behar ditu.

Lehenik eta behin adingabekoak ezin izango dute gure aplikazioa erabili, aplikazioaren barnean ordainketak egin behar izango direlako eta gainera bakoitzak bere datu espezifikoak sartu behar izango dituelako eta hori egin ahal izateko adin handikoa izan behar zara, bestela zure gurasoek jakin gabe gauzak ordaindu eta jende ezezagunekin jolastuko duzu.

Horrez gain, kirola praktikatu ahal izateko egoera fisiko egoki batean egon beharko da partido serio bat jolastu eta partidoak irauten duen denboran korri egin ahal izateko, hau da, formaz kanpo dagoen pertsona bat ezin izango du gure aplikazioa erabili. Ez dago adin maximorik, baina bakoitza bere gaitasun fisikoez konsziente izan behar du.

Gainera, neska ala mutila den berdin du, gure aplikazioa edozein pertsonak erabili ahal izango duelako. Horrela, sexu desberdineko pertsonen harteko harremanak ere sortuko dira eta gainera berdintasuna bermatuko da.

Azkenik, nahiz eta ezaugarri espezifiko bat ez izan, bezeroaren futbol maila berdin izango du, izan ere, bakoitzak hasieran bere maila jarri beharko du eta ondoren guk bere maila berdineko jendearekin jolastea eramango ditugu, horrela partidoak berdinduagoak egongo dira eta interesgarriagoak izango dira.